# ELKARBERRI 60

Nº 60 Abril - Junio 2018 / 2018ko Apirila - Ekaina Ejemplar gratuito Depósito Legal: BI-945-05 ISSN 2444-4065

## 2018 AÑO ELECTORAL




Revista trimestral del Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
*Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialeko Hiruhilabetekaria*

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

# EFEOREN IKASTAROAK CURSOS DEL COFPV 2018



## INDUCCIÓN MIOFASCIAL NIVEL II

| | | |
|---|---|---|
| **junio**<br>***21 - 22***<br>***ekaina*** | **BILBAO**<br>***BILBO*** | **octubre**<br>**4 - 5**<br>***urria*** |



## ESCUELA DE ESPALDA: PILATES TERAPEÚTICO, HIPOPRESIVOS Y ENTRENAMIENTO FUNCIONAL.

| | | |
|---|---|---|
| **abril**<br>***14 - 15***<br>***apirila*** | **VITORIA**<br>***GASTEIZ*** | **abril**<br>**21 - 22**<br>***apirila*** |



## MÉTODO TERAPÉUTICO DE FISIOTERAPIA RESPIRATORIA PEDIÁTRICA

| | |
|---|---|
| **BILBAO**<br>***BILBO*** | **mayo**<br>**11 - 12 - 13**<br>***maiaztza*** |

*EFEOk ikastaroaren lekua edo data aldatzeko eskubideari eusten dio, irakasleen beharrizanak eta antolatzaileekin zerikusirik ez duten arrazoiak tarteko direla.*
*Ikastaroetako inskribapenaren ordenagatik bananduko dira plazak, webgunearen bidez egin beharrekoa (www.cofpv.eus)*

El COFPV se reserva el derecho de poder modificar el lugar de celebración del curso o alguna fecha, debido a necesidades de los docentes y razones ajenas a la organización.
Las plazas se otorgarán por riguroso orden de inscripción a los cursos, debiéndose hacer a través de la web colegial (www.cofpv.org)



**JON HERRERO**
Presidente del COFPV
*EFEO-ko* Presidentea





# HASTA LUEGO

Me dirijo a todos vosotros para despedirme y daros las gracias por vuestro apoyo incondicional durante estos casi veinte años.

He tenido la oportunidad de conocer a mucha gente interesante, también he tenido que lidiar con muchos problemas y sin sabores, pero por encima de todo, he procurado poner mis conocimientos y empeño en engrandecer y exteriorizar la marca Fisioterapia.

Aunque me resulta triste, creo que ha llegado la hora de deciros adiós.

Por supuesto, quiero agradecer la colaboración prestada por todos los miembros de las Juntas de Gobierno, ha sido un placer conocerlos y trabajar con ellos.

Igualmente, le deseo al equipo entrante muchos éxitos en todos los proyectos que emprendan, saben que cuentan conmigo para todo lo que precisen, siempre estaré ahí.

Llegados hasta aquí, me gustaría hacer una reflexión en público.

Creo que debiéramos replantearnos una rectificación ideológica del formato tradicional de Colegio al uso, visualizarnos más y reforzar la imagen de profesional sanitario, porque hay muchas amenazas e intereses ocultos que pueden poner en peligro nuestro futuro.

Si queremos ser relevantes, no debemos tener miedo a diferenciarnos del resto de colectivos, aunque tengamos que exponernos y enfrentarnos a la opinión de otros.

La clave está en presentar el talento desde un posicionamiento diferenciador, que seduzca, capte la atención del público y los medios y genere interés.

Estoy contento, que no satisfecho.

Quizás nos ha faltado un poco más altura de miras corporativa, pero estábamos comenzando un proyecto y carecíamos de los recursos y experiencia suficiente.

También hemos tenido capacidad de anticipación para atenuar muchos problemas y agresiones, que al final nos podían haber generado un sarpullido emocional importante.

Creo sinceramente que los logros han sido importantes, pero como diría Confucio, "Los ingredientes de un buen Gobierno son alimentos, armas y la confianza del pueblo.

# *GERO ARTE*

*Zuei guztioi zuzentzen natzaizue agur esateko eta eskerrak emateko ia hogei urteotan baldintzarik gabeko babesa emateagatik.*

*Jende interesgarri asko ezagutzeko aukera izan dut, eta arazo eta atsekabe askori ere aurre egin behar izan diet, baina, oztopoak oztopo, nire jakintzak eta eginahalak Fisioterapia marka handitzeari eta zabaltzeari eman dizkiot.*

*Nahiz eta tristea iruditzen zaidan, uste dut zuei agur esateko ordua iritsi dela.*

*Jakina, Gobernuko Batzordeetako kide guztien laguntza eskertu nahi dut: plazera izan da haiek ezagutu eta haiekin lan egitea.*

*Era berean, hasiko den taldeari arrakasta handiak opa dizkiot egingo dituzten egitasmo guztietarako; badakite ni behar duten guztirako naukatela eta beti egongo naizela hor.*

*Honaino iritsi garenez, hausnarketa bat egin nahiko nuke jendaurrean.*

*Uste dut zuzenketa ideologiko bat egin beharko genukeela Elkargo tradizionalaren ohiko ereduaren inguruan, geure burua gehiago ikusarazi eta osasun arloko profesionalaren irudia indartu, gure etorkizuna arriskuan jar dezaketen interes ezkutu asko baitaude.*

*Garrantzitsuak izan nahi badugu, ez diogu beldurrik izan behar beste taldeengandik bereizteari, nahiz eta geure burua ikusgai jarri eta beste batzuen iritziari aurre egin behar.*

*Gakoa talentua posizionamendu bereizgarri baten bidez aurkeztea da: seduzitzen duen, jendearen eta komunikabideen arreta erakartzen duen eta interesa pizten duen posizionamenduaren bidez.*

*Pozik nago, baina ez gogobeteta.*

*Beharbada, asmoen bikaintasun korporatibo pixka bat falta izan zaigu, baina egitasmo bat hasten ari ginen, eta ez genuen nahikoa baliabide eta esperientzia.*

*Gorabeherei aurrea hartzeko gaitasuna ere izan dugu, eta zauri emozional handi bat sortuko liguketen arazo eta eraso asko ahuldu ahal izan ditugu.*

*Uste osoa dut lorpenak handiak izan direla, baina, Konfuziok esango lukeen moduan, "Gobernu on baten osagaiak elikagaiak, armak eta herriaren konfiantza dira".*

## SUMARIO — *LABURPENA*

| SUMARIO | | LABURPENA |
|---|---|---|
| Cursos | 2 | Ikastaroak |
| Editorial | 3 | Editoriala |
| Noticias | 4 - 13 | Berriak |
| Formación | 14 - 15 | Prestakuntza |
| Artículo | 16 - 19 | Artikuloa |
| Asesoría Jurídica | 20 - 21 | Aholkularitza Juridikoa |
| Anuncios | 22 - 25 | Iragarkiak |
| Colegiados | 26 | Elkargokide |
| Biblioteca | 27 | Liburutegia |

ELKARBERRI

Presidencia y Dirección: Juan Luis Herrero Erquiñigo
Coordinación: Comisión Comunicación, Publicidad y Protocolo
Realización y Maquetación: J&J Creativos
Fotografía: ORO
Edita: Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
Publicación trimestral: 2.860 ejemplares
Ejemplar gratuito para distribuir a los/as colegiados/as

Queda prohibida la reproducción parcial o total de los contenidos publicados en este ejemplar sin autorización expresa escrita de la Junta de Gobierno del COFPV.

Elkarberri y el COFPV no se hacen responsables del contenido e imágenes de los anuncios publicitarios, así como de los contenidos de los artículos publicados, ya que se corresponden con la opinión de sus autores.

*Lehendakaritza eta Zuzendaritza: Juan Luis Herrero Erquiñigo*
*Koordinazioa: Komunikazio, Publizitateko eta Protokolo Batzordea*
*Gauzatzea eta Maketazioa: J&J Creativos*
*Argazkigintza: ORO*
*Argitalpena: Euskadido Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala*
*Hiruhilabeteko argitalpena: 2.860 ale*
*Elkargokieei emateko dohainezko alea*

*Ale honetan argitaratutako edukien kopia osoa edo partziala egitea debekatuta dago, EFEO-ko Gobernu Batzordeko idatzizko berariazko baimena eduki gabe.*

*Elkarberria eta EFEOa ez dira iragarkien eduki eta irudien arduradunak egiten, ezta argitaratutako artikuluen edukiena, beraien egileen iritzia delako.*

# LEP

Dei ugari jaso ditugu Lan Eskaintza Publikoari buruzko informazioa eskatzeko, eta badakigu gai garrantzitsua dela; horregatik, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak laburpen batean bildu du eskura duen eta elkargoaren bitartekoen bidez (Twitter, Elkargoaren webgunea, newsletterra) zatika argitaratu duen informazio guztia. Hemen duzu:

- 2017ko abenduaren 5a
  EUSKO JAURLARITZAK "2017ko LAN-ESKAINTZA PUBLIKOA" ONETSI ZUEN; GUZTIRA ENPLEGU PUBLIKOKO 4.583 PLAZA EUSKAL ADMINISTRAZIO OSORAKO

- Otsailak 8
  OSAKIDETZAKO LAN-ESKAINTZA PUBLIKO HANDIENA OFIZIAL BIHURTU ZEN

- Otsailak 9
  2018/02/08ko EHAA
    103/2018 EBAZPENA, otsailaren 5ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Horren bidez, Osakidetza-Euskal osasun-zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko 2016an eta 2017an deitutako hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartzen dira.
- Otsailak 13
  BOPV 08/02/2018
    RESOLUCIÓN 103/2018, de 5 de febrero, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se aprueban las bases generales que han de regir los procesos selectivos para la adquisición del vínculo estatutario fijo en Osakidetza-Servicio vasco de salud convocados en los años 2016 y 2017.

- Otsailak 14
  Lan Eskaintza Publikoko fisioterapeutentzako plazak LIBREA: 33 / BARNEKOAK: 3 / GUZTIRA: 36

- Otsailak 15
  2018/02/15eko EHAA
    Lan Eskaintza Publikoaren oinarri espezifikoen argitalpena.
    129/2018 EBAZPENA, otsailaren 7koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Horren bidez, Osakidetza-Euskal osasun-zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Diplomatu Sanitarioen Lanbide Taldeko Fisioterapeuten kategorian lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak onetsi dira.

- Otsailak 15
  OSAKIDETZAKO LAN-ESKAINTZA PUBLIKOA: HAUEK DIRA KATEGORIA BAKOITZEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

- Martxoak 7
  OSAKIDETZAK 60.000 ESKAERA JASO DITU LAN-ESKAINTZA PUBLIKOAN parte hartzeko

Jakinarazten dizuegu Osakidetzak telefono-zenbaki bat jarri duela zuen esku, Lan Eskaintza Publikoari buruzko informazioa emateko:
945 006 150

Era berean, adierazi nahi dizuegu **zuen kategoriako azterketa-eguna ekainaren 15a izango dela, 17:00etan, Barakaldoko BECen.** Gaitegia eta bibliografiak otsailaren 15ean argitaratutako EHAAko ebazpeneko IV. eranskinean ageri dira.

Bestalde, jakinarazi nahi dizuegu EFEO eta Edit. MAD akordio batera iritsi direla edizio berezi bat martxan jartzeko, bereziki Euskadiko elkargoko kide diren fisioterapeutentzat, prezio lehiakorrean. Argitalpen hori elkargoaren web orrian eskura daiteke.

Elkargoaren prestakuntza-eskaintza zabala ez da eskuragarri egongo urtearen amaierara arte, azken batzarrean adierazi zen moduan. Ezinezkoa zaigu deialdi honetarako abian jartzea.

Beti bezala, eta ahal dugun heinean, 2016-2017ko Lan Eskaintza Publikoarekin lotura duen guztiari buruzko informazioa helaraziko dizuegu.

***Idazketa Kontseilua***

# EFEOko HAUTESKUNDEAK



2018ko lehen seihileko honek lau urteko zikloaren amaiera markatzen du, eta horrekin batera, azken legealdiaren amaiera. Hortaz, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialaren Gobernu Batzorderako hauteskunde-urtea izango da. Horri dagokionez, apirilaren 16an ezohiko Gobernu Batzordea egin zen Bilbon, hauteskundeen deialdi ofiziala onesteko eta prozesuari hasiera emateko.

Hauteskundeen epeak ixten diren heinean, zuen botoa emateko edo hautagaitzak aurkezteko jarraitu beharreko prozeduren berri emango dizuegu.

Gobernu Batzordetik parte hartzera animatu nahi zaituztegu –bai hautagaitzak aurkeztuta, bai zuen boto partikularrak emanda–. Gure asmoa da lanbidearen garapenaren zuzeneko arduradun eta protagonista sentitu zaiteztela.

***Idazketa Kontseilua***




# FISIOTERAPIA LEHEN MAILAKO ARRETAN

## EUSKAL FISIOTERAPEUTEK BAT EGITEN DUTE EUSKADIKO LEHEN MAILAKO ARRETAKO ZERBITZUETAN FISIOTERAPIA SARTZEKO EUSKO JAURLARITZAREN ASMOAREKIN

Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburu Darpón jaunak Legebiltzarreko Batzordean eginiko azken adierazpenek gure interes osoa eta optimismo handia piztu dute; badirudi apustu handia egin nahi dela Osakidetzaren sareko Lehen Mailako Arretako taldeetan fisioterapeuten figura sartzeko.

Urte askotan zehar eta hainbat lekutan eskatu izan diegu hori euskal osasun-politika publikoaren arduradunei. Estatuko beste lurralde batzuetako esperientziak, zalantzarik gabe, fisioterapia lehen mailako arretaren esparruan sartzera bultzatzen du. Erabiltzaileengan asebetetze-maila handia aitortu da eta balantze ekonomikoak positiboak izan dira. Horrez gain, susperraldi-/errehabilitazio-zerbitzuei eusteko kostuetan aurreztu da. Alderdi horiek guztiek proiektu hori bermatzen dute.

EFEOn lehen mailako arreta artatzeko eredu iraunkor, hurbil eta zuzen gisa identifikatzen dugu, non osasunaren sustapen, babes eta prebentzioko programak garatzeak oinarrizko papera betetzen duen. Fisioterapiak eta fisioterapeutek ez genuke Osasun Sailburutzak eta Osakidetzak eskaintzen diguten aukera hori gutxietsi behar. Onar dezagun rol berri hori eta eska diezaiegun arduradunei lehen mailako osasunaren arloko eragile gisa protagonista ukaezin bihur gaitzaten.

Jarraian, hitzez hitz jasotzen dugu martxoaren 15ean hainbat komunikabideetan argitaratutako berria, bai eta berri horri erantzuna emateko elkargoaren prentsa-oharra eta horren ondorengo eraginak ere.

**EL CORREO, 2018/03/15**

### *Osakidetza fisioterapeutak eta hortzetako higienistak lehen mailako arretan sartzeko aukera aztertzen ari da*

*Jon Darpón Osasun-sailburuak maila horretan psikologoak eta podologoak sartzeko aukera baztertu du*

*Osakidetza fisioterapeutak eta hortzetako higienistak lehen mailako arretako zerbitzuetan sartzeko aukera aztertzen ari da. Ostegunean Jon Darpón Osasun-sailburuak azaldutakoaren arabera, erabaki horren bidez egun anbulatorioetan errehabilitazioaren eta odontologiaren arloan ematen den arreta hobetu nahi da. Momentuz, baztertu egin dute psikologoak edo podologoak bezalako profilak sartzeko aukera.*

*Gaur egun, hauek dira lehen mailako arretara atxikitako profil profesionalak: familia-medikuak, pediatrak, erizainak, emaginak, erizaintzako laguntzaileak, administrari-laguntzaileak eta zeladoreak. Iragarki horrek ez du esan nahi osasun-zerbitzuek beste esparru batzuetako arreta ematen ez dutenik, hala nola, psikologia, fisioterapia, podologia edo hortzetako arretakoa. Hala ere, zerbitzu horiek Osakidetzako beste arlo batzuetara desbideratzearen bidez edo osasun-sare horren bestelako egituren menpeko profesionalen bidez eskaintzen dira; ospitale-sarea eta buru-osasuneko sarea, adibidez.*

***Errehabilitazioa indartzea***

*Fisioterapiaren kasuan, Darpón sailburuak aitortu du egungo eredurako alternatibak aztertzea “komeni dela”, bai eta, lehen mailako arretako taldetik, osasunaren prebentzioko eta sustapeneko jarduera komunitarioak ustiatzea ere, udalerri, kiroldegi eta elkarteekin lankidetzan. Hori lortzeko, hiru jardunbide osagarri egongo dira. Horietako bat errehabilitazio eta fisioterapiako baliabideak «indartzean» datza.*

*Horrez gain, “erizaintza komunitarioan” hedatze handia aurreikusten da, “osasun komunitario”-ko jarduerak sustatze aldera. Arlo horretan jakitera eman den beste neurrietako bat izan da proiektu pilotu bat martxan jarriko dela. Horren xedea da fisioterapiako baliabideak lehen mailako arretan sartzearen «abantailak eta eragozpenak»*

*aztertzea. Baliabide horiek familia-medikuekin modu koordinatuan emango lirateke. Bestalde, Osakidetza aztertzen ari da odontologoei laguntzen dieten langileak hortzetako higienistekin ordezkatzen joateko aukera –gaur egun, erizainak edo laguntzaileak dira–.*

*Horrela, 2012an hortzetako higienisten zerrendak sartzeko abiarazitako prozesua berreskuratuko litzateke. Bere garaian, SATSE erizaintzako sindikatuak jarritako berrezartzeko errekurtso baten ondorioz geldiarazi zen; baina azkenean, ezetsi egin zuten. [...]*

### ELKARGOAREN PRENTSA-OHARRA, 2018/04/03

## EUSKAL FISIOTERAPEUTEK BAT EGITEN DUTE EUSKADIKO LEHEN MAILAKO ARRETAKO ZERBITZUETAN FISIOTERAPIA SARTZEKO EUSKO JAURLARITZAREN ASMOAREKIN

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak (EFEO) dioenez, neurri berri horri esker euskal pazienteenganako arreta hobetu eta beste patologia batzuk prebenituko dira, eta jende gutxiago bideratuko da bigarren mailako arretara

Euskal fisioterapeutek urteak eta urteak daramatzate eskaera hori egiten, eta pozik daude programa pilotu bati ekiteko erabakiarekin

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala (EFEO) gustura agertu da fisioterapia Osakidetzako lehen mailako arretako zerbitzuetan txertatu asmo duen Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren proiektuarekin. “Guztiz bat egiten dugu Osasun sailburu Jon Darponek egin duen iragarpenarekin, gure kolektiboak aspaldidanik egin duen eskaera bati erantzuten baitio”, azpimarratu du Jon Herrerok, EFEOko presidenteak.

Euskal fisioterapeutak sinetsita daude halako neurriek ondorio zuzena izango dutela euskal herritarren osasunaren eta bizi-kalitatearen hobekuntzan; izan ere, herritarrek askoz ere modu errazagoan eta bizkorrago jaso ahal izango dituzte fisioterapeuta profesional baten zainketak. “Fisioterapia lehen mailako arretaren barruan sartu duten leku guztietan, hobekuntza nabaria izan da osasunaren sustapenean eta prebentzioan, eta kostu asko aurreztu dira osasungintza publikoan; izan ere, paziente gutxiago bideratzen dira bigarren mailako arreta-sistemara, eta ez da kolapsorik gertatzen”, azaldu du Jon Herrerok.

EFEO prest agertu da Osasun Sailari bere baliabide guztiekin laguntzeko neurri hau proiektu pilotu baten bidez abiarazten, eta Osakidetzari gomendatzen dio kontuan har dezala eta babes dezala euskal osasungintza publikoan lanean ari diren fisioterapeuten iritzia. “Atseginez bilduko gara behar den aldi guztietan, errehabilitazioa eta fisioterapia indartzeko proiektuak babesteko, arlo honetan dugun esperientzia zabala partekatzeko. Ziur gaude txertatze honen abantaila guztiak agerikoak izango direla prozesu osoan, eta espero dugu Osakidetzako sare osoan zehar ere zabaltzea”, adierazi du EFEOko presidenteak.

Azkenik, euskal fisioterapeutek berriz oroitarazi nahi dute fisioterapiaren diziplina oso garrantzitsua dela patologiak prebenitzeko eta pazienteen osasuna eta bizi-kalitatea sustatzeko. “Prebenitzea aurrea hartzea da, hau da, patologien intzidentzia murriztea; horrekin batera, gainera, osasungintzako faktura gutxitzen da, eta arreta publikoa hobetzen”, esan du, amaitzeko, EFEOko presidenteak.

***Idazketa Kontseilua***

### DIARIO VASCO 2018/04/04

## Los fisioterapeutas apoyan estar en atención primaria

:: DV

**SAN SEBASTIÁN.** El Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco (COFPV) ha mostrado su satisfacción por el proyecto del Departamento deSanidad del Gobierno Vasco que pretende incorporar la fisioterapia a los servicios de atención primaria de Osakidetza, porque prevendrá patologias y supondrá «una reducción de la factura sanitaria».

«Queremos expresar nuestro más firme respaldo a este anuncio que ha realizado el consejero de Sanidad, Jon Darpón, y que responde a una histórica reivindicación de nuestro colectivo», destaca Jon Herrero, presidente del COFPV en un comunicado. Los fisioterapeutas vascos están convencidos de que este tipo de medidas van a repercutir directamente en la mejora de la saludy la calidad de vida de la ciudadania vasca, «que va a poder acceder de manera mucho más sencilla y rápida a los cuidados de unfisioterapeuta profesional».

«En todos los lugares donde se incorpora la fisioterapia a la atención primaria, se ha notado una franca mejoria en la promoción y la prevención de la salud, con un importante ahorro de costes para la sanidad pública, ya que consigue que haya menos derivaciones al sistema de atención secundaria, evitando los colapsos actuales», añade.

Asimismo, Herrero recuerda «la importancia» que tiene esta disciplina sanitaria para prevenir futuras patologias y para reforzar la salud y la calidad de vida de los pacientes. «Prevenir es adelantarse y, por lo tanto, disminuir la incidencia de patologías, con lo que este supone de reducción de la factura sanitaria, a la vez que se mejora la atenciónpública», subraya. El COFPV se ha puesto a disposición de Sanidad para apoyar «con todos sus recursos la próxima implantación de esta medida» a través de un proyecto piloto, y recomienda a Osakidetza «que tenga en cuenta la opinión y que se apoye en los profesionales de la fisioterapia».

# OSASUN SAILAK BAZTERTU EGIN DU JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIETAKO GRADUDUNEN ASMOA, PROGRAMA TERAPEUTIKOAK GARATZEKOA

2017ko irailaren 8an, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Elkargo Profesionalen Kontseilu Nagusiko presidenteak txosten bat eskatu zion Osasun eta Kontsumoko Zuzendariordetza Nagusiari, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradudunek jarduera terapeutikoaren arloko eskumenak eta eskuduntzak garatu ahal izateko aukerari buruz, gaixotasunak eta lesioak dituzten pertsonen susperraldia programatuz, beren ezaugarri eta beharretara egokitutako ariketa fisikoen bidez. Jatorrizko eskaeraren helburutik, paragrafo hau jasotzen dugu, hitzez hitz:

*"…beste osasun-langile batzuekin batera, jarduera terapeutikoaren arloko eskumenak eta eskuduntzak garatu ahal dituzte, pertsona osasuntsuekin edo patologiak dituztenekin ariketa fisikoa programatzeko; hau da, gaixotasunak eta lesioak dituzten pertsonen susperraldia programatu dezakete, beren ezaugarri eta beharretara egokitutako ariketa fisikoen bidez; eta bakar-bakarrik Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak aplikatuz".*

Osasun Ministerioak berehala erantzun zuen. 2017ko abenduaren 20an, komunikatu irmoa egin zuten, neurrigabeko eskaera hori baztertzeko. Jarraian, erantzun horren paragraforik nabarmenenak jasotzen ditugu, hitzez hitz. Horiek Eusko Legebiltzarraren aurrean egin genuen azken agerraldian aurkeztu genizkien bertako talde politikoei, kirolaren lanbideak arautzeko lege-proiektuaren harira.

*[…] Zuzendaritza-zentro honen irizpidearen arabera, aurretik adierazitako gradudun/lizentziadunak ezin dira ariketa fisikoaren antolakuntza, planifikazio eta koordinazioaren arduradunak izan lesioak edo patologiak dituzten pertsonei dagokienez. Izan ere, pertsona horiengan Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako berezko teknikak aplikatzea, behar bezalako osasunaren arloko prestakuntza ez duten profesionalen esku, oso arriskutsua izan daiteke pazienteen osasun eta segurtasunarentzat.*

*Lesioak dituzten pertsonekin egiten den ariketa fisiko terapeutikoa, zalantzarik gabe, pertsonen osasunean eragiten duen jarduera sanitarioa da; ez osasunaren arlokoa ez den jarduera baten bigarren mailako eragin gisa, baizik eta jarduera sanitario gisa. Kontzeptu hori Estatuko oinarrizko legerian aurkitu dezakegu, zehazki, urriaren 10eko 1277/2003 Errege Dekretuko (Osasun-zentro, -zerbitzu eta -erakundeen baimenei buruzko oinarri orokorrak finkatzen dituena) 2.1.d) artikuluan. Honela definitzen da jarduera sanitarioa: "osasunaren arloko profesionalek suspertzeko, prebenitzeko, diagnostikatzeko, tratatzeko edo errehabilitatzeko ekintzak egitea pertsonen osasuna sustatzeko, lehengoratzeko edo hobetzeko".*

*[…] Zuzendaritza honen arabera, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradudun/lizentziadunek ez dute prozesu eta gaixotasunen (hezur eta artikulazioetakoak, kardiobaskularrak edo arnasketakoak, besteak beste) etiologia eta fisiopatologiaren arloko behar besteko prestakuntza, paziente bakoitzak behar duen ariketa fisikorako behar bezalako egokitzapena bermatzeko. Bestalde, ezin da alde batera utzi prestakuntza horren absentziak kirol-jarduera egiten duten edo egingo duten pazienteengan lesioak handitu ditzakeela, edo lesio berriak sortu.*

*Bestalde, jarduera sanitarioak, indarreko legeriaren arabera, derrigorreko baimen sanitarioa duten zentro/zerbitzu/unitateetan egin behar dira, jarduera sanitarioa egiteko beharrezkoak diren baldintza pertsonak, teknikoak eta materialak bermatzeko […].*

*Hori dela eta, zuzendaritza-zentro honen irizpidearen arabera, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradudun/lizentziadunek lesionatutako kirolaria dagokion profesional sanitariora (fisioterapeutak, Gorputz eta Kirol Hezkuntzako Medikuntzako espezialistak, familia- eta komunitate-medikuak, Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioaren arloko medikuak, Kardiologiako medikuak eta abar) bideratzeko gaitasuna eta betebeharra dute.*

Gure aldetik, adierazi behar dugu erabat ados gaudela emandako erantzun horrekin. Erabat baztertzen dugu kolektibo honen lege-ordezkarien eskuduntzen aldaketa-asmo hori.

***Idazketa Kontseilua***

# FISIOTERAPEUTEN ELKARGOEN BATZAR NAGUSIA

Martxoaren 24an, Madrilen egin zuten 2018ko Fisioterapeuten Elkargoen Kontseilu Nagusiaren lehenengo ohiko Batzar Nagusia. Bertan, EFEOren ordezkari gisa hauek izan ziren: Jon Herrero –karguagatiko kontseilari gisa–, eta June Ruiz, Edurne Andueza eta Roberto Romero –kontseilari hautetsi gisa–.

Bilera luze eta bizia izan zen, larunbat osoan luzatu zena. Bertan, gai asko –eta oso anitzak– landu zituzten; hauek izan ziren garrantzitsuenak:

- 2017 ekitaldiko kontuak onestea.
- Estrategia komunak bilatu eta adostea, fisioterapiako espezialitateen arau-garapena aldarrikatzeko.
- Eremu ez-sanitarioko kolektiboen aldetik eskuduntzen arloko mehatxu eta eraso larri gisa identifikatu denaren aurrean erantzuna emateko neurriak aztertu eta pentsatzea.
- Lanbidea zabaltzeko azken kanpainaren balantzea baloratzea.
- Erronka eta proiektu tekniko berriak pentsatzea.



Lankidetzan parte hartzeko gure konpromisoari eusten diogu, eta, halaber, zorroztasun eta seriotasunez, gure jarduketa guztietan gidari izan ditugun lan-konpromiso eta erantzukizun bera eskatuko ditugu.

***Idazketa Kontseilua***

# ELKARGOAREN HITZARMEN BERRIAK

ASESORES

Elkargokideek AB ASESORES bulegoari egiten dizkioten Jabetza Industrial eta Intelektualaren arloko espedienteak erregistratzeko eta izapidetzeko zerbitzuei lotutako kontsulta guztiak doakoak izango dira; betiere, idatzizko txosten tekniko eta/edo juridiko bat behar ez badute ebazpena eman ahal izateko.

Jabetza Industrialeko modalitate ezberdinen (patenteak, diseinuak eta markak) erregistroak eta mantentze-lanak egiteko, bai eta AB ASESORES bulegoaren aldetik elkargokideentzat eginiko gainerako erregistro-kudeaketetarako, ehuneko hogeiko (% 20) beherapena aplikatuko da ordainsari profesionalen kontzeptuan, 2018ko tarifetan.

AB ASESORES bulegoak, inolako kosturik gabe, marka-auditoretza bat egingo die marken zorroa duten eta horretarako eskaera egiten duten EFEOko elkargokideei. Auditoretza horrek ez du kosturik izango, marka horiek AB ASESORES ez den beste agentzia baten bidez edo harekin zuzenean izapidetu badira ere.

MAD

Hauek izango dira 2016-2017ko Lan Eskaintza Publikorako liburuen edizio berezien prezioak:

| FISIOTERAPEUTAS | Precio Ed. Especial |
|---|---|
| XOSK0263 – Temario Común y Test | 22,00 € |
| XOSK0264 – Temario General vol. 1 | 25,00 € |
| XOSK0265 – Temario General vol. 2 | 25,00 € |
| XOSK0266 – Temario General vol. 3 | 25,00 € |
| XOSK0267 – Test | 18,00 € |

Garraio-kostua doakoa izango da eskaera 90 euro garbi baino gehiagokoa bada. Eskaera 90 euro garbi baino gutxiagokoa bada, garraio-gastuak 5 eurokoak izango dira (penintsulan soilik; Kanariar Uharteetarako, Balear Uharteetarako eta Ceuta eta Melillarako, kontsultatu).

Interesa baduzu, elkargoaren webgunean aurkituko duzun eskaera-formularioa bidali behar duzu, behar bezala beteta, pedidos@7editores.com helbide elektronikora edo 955796626 FAX zenbakira.

# DEKRETU BERRIAREN EZAR
# ARRETA G

Dakizuen moduan, Euskadiko arreta goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko Dekretu berria ezartzeko prozesua kezkak sortzen ari da Esku-hartzeko Talde delakoetan parte hartzen duten profesional batzuen artean, itunpean sartu ezin izan zenuten edo nahi izan ez zenuten pertsonengan, bai eta, jakina, Arreta Goiztiarreko eredu hori eskatzen duten, horretan parte hartzen duten eta/edo horretara hurbiltzen diren familien artean ere.

EFEO, euskal fisioterapeuten kolektiboaren legezko ordezkari gisa, kezka horiek jasotzen ari da –ahal duen heinean–, erakundeekin hainbat kontaktu izaten ari da eta arreta-eredu berriaren inguruko kezka, kexa, ahultasun eta indarren oihartzun orokorra jaso duten komunikabideekin lankidetzan ari da.

Ildo horretan, azken aldian, aukera izan dugu (logopeden eta psikologoen kolektiboko ordezkariekin batera) Cadena SER irratian tarte bat partekatzeko eta El Correo (Bizkaiko edizioa) egunkariarekin elkarrizketan aritzeko. Ereduaren protagonista diren kolektiboetatik jasotzen joan garen kezka garrantzitsuenen zerrenda baten berri eman ahal izan genien, baita gaiaren inguruan dugun iritzia ere. Egiari zor, Sánchez Robles andreak (Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako foru-diputatua) eginiko usteko iruzkinak komunikabideetan argitaratzeak (zeinetan Arreta-eredu berria indarrean jarri arte eskainitako zentroen, berme profesionalaren eta eskainitako zerbitzuaren irudi zalantzatsua eskaintzen baitzuen) mugiarazi gintuen gure ezinegona eta adostasun-eza adieraztera komunikabide berberetan eta neurri berdinean. Zer esanik ez foru-



# RPEN-PROZESUA ZAINTZEA

# OIZTIARRA

diputatuak hitz egiten duenean marraztutako "arrosa koloreko esparruari" buruz; aurrez aurre talka egiten du gure aldetik eta sindikatuen aldetik jasotakoarekin.

Gainera, azpimarratu nahi dugu Euskadiko Profesional eta Autonomo Langileen Elkarteko ordezkariekin harremanetan gaudela (oraindik ere indarrean). Erakunde horrek jakinarazi zigun sektorean parte hartzen duten profesional askoren iritzi orokorra, eta bi aldeek elkarrizketa baliozkoaren eta partekatutako sentsibilitateen aldeko apustua eginez, baterako bitartekotza-estrategiak eta neurriak proiektatu nahi dira, defentsa profesionala aberastu eta euskal biztanleriari eskainitako zerbitzu soziosanitarioei buruzko behar bezalako gizarte-erantzukizuna emateko.

Bestalde, Gipuzkoako Arreta Goiztiarraren arduradun gorenekin bildu gara. Elkarrizketa horien harira, interpretatzen dugu lurralde honetako ereduaren ezarpena atzeratuago dagoela. Arduradunek adierazi digute itunak egiteko aldia urte amaieran irekiko dela eta helburu horretarako aurrekontu-partida handituko dela zenbatetsi dute. Azpimarratu behar da "fisioterapia egiteko aginduak" oso mugatuak direla, eta psikomotrizitatera bideratutakoa nabarmena dela (gure ustez, neurrigabea).

Oposizioko talde politikoekin ere harremanetan jarri gara eta Batzar Nagusietan agertzeko eskabide bati buruz jardun gara, ereduaren ezarpenaren garapena eta emaitzak objektiboki aztertzeko ebaluazio-prozesu bat berehala aktiba dadila eskatzeko.

Zuzenean parte hartu dugu, halaber, gonbidatu gisa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren azken saioan. Bilera horretan, EFEOren ordezkari batek Arreta Goiztiarreko eredu berriaren ezarpenaren garapenaren aurrean dagoen kezka orokorraren berri eman ahal izan zuen, eta prozesuaren ebaluazio-planak berehala aktibatzeko gonbidapena egin zen, egon zitezkeen akatsak eta disfuntzioak identifikatzeko eta zuzentzeko.

Azkenik, martxoaren 12an Sergio Murillo jaunak deitu zigun, BFAko Gizarte Ekintza Saileko Autonomia Pertsonalaren Sustapenerako eta Mendekotasunaren Arretarako zuzendariak. Topaketa horretan, hiru orduz baino gehiagoz partekatu ahal izan genituen Dekretuari buruz eta haren ezarpen-prozesuari buruz baloratzen, jasotzen eta transmititzen aritu garen alderdiak. Landutako gai ugarien artean, Murillo jaunak komunikabideetan agertutakoari buruzkoa ñabartu zuen, eta hitzeman zuen "sailburuaren hitzak ez zirela transkribatu hark esandako hitzetan". Ildo horretan, barkamena eskatu zien ofendituta senti zitezkeen pertsonei.

Gure aldetik, aitorpen formal bat eskatu genuen eta balioa ematea duela hilabete gutxira arte zerbitzua eskaini duten pertsonei eta arrazoi batengatik edo beste batengatik ituntzea erabaki ez dutenei, bai eta, ausardiaz haren alde egitea erabaki dutenei ere, dirua, energia eta ahalegin handia inbertituz, eta proiektu berrian arriskatuz.

Esku-hartzeko Taldeei eta funtzionamendu-dinamikei dagokienez, mahaiaren gainean jarri ziren helarazi dizkiguzuen ezinegonak (arazo teknikoak plataforma digitalarekin, zailtasunak zuzen dimentsionatzeko itundutako orduen kopurua, ordu-tarteen zurruntasuna...). Bitxia bada ere, elkarrizketa horretatik ondorioztatu genuen

ustez profesionalen kolektibora iritsi den informazioa ez dela beti zuzena izan. Esate baterako, laguntza-zentroak Foru Aldundiarekin hitzartutako ordu-tarteak malguak izan daitezke, eta arreta-eskaerarik ez badago, itunetik kanpoko saioekin okupa daitezke (zuetako askok helarazi diguzuenarekin kontraesanean). Edozein kasutan, eskatu digute zuei jakinarazteko prest daudela beharrezkoa den informazio guztia eskaintzeko hura eskatzen duten guztiei.

Bestalde, espero da azarorako zentro berriak sartzeko lizitazio-prozesu berri bat irekiko dela berriro. Horren harira, ezarpen-dinamiken inguruko aldaketa funtzionalaren iradokizun batzuen berri emango dizuegu.

Zerbitzuari eta erabiltzaileen arretari dagokionez, banaketa geografikoaren azterketa labur bat helarazi genuen –haiek eskaintzen digutenarekin bat datorrena– eta prestazioan dauden alde kezkagarriak jasotzen ditu. Muturreko adibideak jartze aldera, Bizkaian, itunpeko zentroen % 50 Bilbo Handian daude; Busturialdean, berriz, –gaur-

2 CIUDADANOS

Lunes 05.03.18
EL CORREO

# Logopedas, fisioterapeutas y psicólogos critican el nuevo modelo de atención a niños



JESÚS J. HERNÁNDEZ
jhernandez@elcorreo.com

La Diputación cambió las normas para atajar los problemas de desarrollo hasta los 6 años, con nuevas exigencias «y sin contar con nosotros»



Pilar Garay (psicóloga), Roberto Romero (fisioterapeuta) y Antonio Clemente (logopeda) posan en un centro de atención temprana. :: L. A. GÓMEZ

**BILBAO.** Aitor acaba de cumplir cinco años y arrastra un problema en el habla que ha comenzado a mejorar gracias a un buen logopeda. Pasó unos meses hasta que se soltó. Si uno trabaja con niños, debe empezar por ganarse su confianza. Cuando los avances comenzaban a materializarse, sus padres le dijeron que tocaba cambiar de logopeda. Una historia para él incomprensible que los adultos resumían con palabras extrañas como «concertación», «decreto» y «subvención». Le han contado que el motivo del cambio es que en la puerta del centro donde iba hay tres escalones. Y que eso lo explica todo.

«Esta es la situación que están viviendo muchos menores vizcaínos. En unos casos por requisitos que deben cumplir las consultas –como más baños o menos escaleras– y en otros, porque la Diputación ha decidido ahora que todos los centros atiendan, al menos, tres de las cinco áreas de intervención (psicología, fisioterapia, logopedia, psicomotricidad y ahora se incluye trabajo social)». Los portavoces de los tres colegios profesionales del sector se han reunido para EL CORREO en un centro de atención temprana, esos espacios donde se atajan los problemas de desarrollo de los menores de seis años. Son «muy críticos» con el cambio de modelo planteado por la Diputación, que contempla nuevas exigencias y otra manera de trabajar, «sin que en ningún momento se haya contado con los profesionales. Se nos ha ninguneado, y a las familias también».

Los requisitos marcados por Acción Social son claros: los centros deben tener al menos dos profesionales e incluir tres de las citadas cinco disciplinas para acceder a la nueva concertación. El resto queda fuera de las ayudas públicas, que hasta ahora cubrían la mayor parte del tratamiento (entre 200 y 325 euros) y ahora la totalidad (unos 40 euros mensuales que antes asumían los progenitores).

«Estás inmerso en un proceso de reeducación con un chaval y, de pronto, ves que tienes que abandonar el caso porque la familia no va a recibir ayuda económica salvo que vaya a un centro concertado. Es un perjuicio evidente para el niño y para los familiares», valora Antonio Clemente, presidente del colegio de logopedas del País Vasco. «Hemos preguntado a nuestros asociados cómo lo ven y cómo les afecta. Y hemos trasladado sus críticas a la Diputación y al Gobierno vasco», revela Pilar Garay, vocal del Colegio de Psicología de Bizkaia. El cambio foral se complementa con un nuevo decreto vasco que regula las características arquitectónicas exigibles a las consultas médicas. «Dos baños, agua caliente, que sea totalmente accesible, más de cien metros cuadrados... Entendemos que deben velar por unos mínimos, pero estos criterios carecen de sentido. La evidencia científica, ratificada en los últimos congresos, recalca que hay que salir de las consultas y tratar al niño en su casa, en su parque. Donde él

## LAS CLAVES

En la nueva norma

### Bizkaia estableció en 2017 un mínimo para los centros: dos profesionales y tres ámbitos de intervención

Modificación del marco

### «Exigen más baños en la consulta o menos escaleras, y lo que se debe hacer es tratar al niño en su casa»

Unanimidad

### Los tres colegios reclaman «flexibilidad» para no perjudicar «a familias, menores y profesionales»

## FISIOTERAPIA EN REANIMACIÓN Y CUIDADOS INTENSIVOS








Profesores - Irakasleak:
Fco. José Mirón y Silvia Roldán

Fechas - Datak:
17, 18 y 19 de noviembre de 2017

## CONTROL MOTOR Y DISFUNCIÓN LUMBOPÉLVICA. INTEGRACIÓN DE LA INVESTIGACIÓN CON EL TRATAMIENTO







Profesor - Irakaslea:
Francisco Martínez

Fechas - Datak:
19, 20 y 21 de enero de 2018

## FISIOTERAPIA OBSTÉTRICA: EMBARAZO, PARTO Y POSTPARTO







Profesora - Irakaslea:
Iraia Lekue

Fechas - Datak:
16, 17 y 18 de febrero de 2018

## TERAPIA MANUAL Y TÉCNICAS DE PUNCIÓN SECA EN EL SÍNDROME DE DOLOR MIOFASCIAL. PUNTOS GATILLO MIOFASCIALES








Profesor - Irakaslea:
Javier González

Fechas - Datak:
16 y 17 de marzo de 2018 (Seminario 3)

# ADINEKOEN AI
# ERANTZUN KARD

Jon Gorriñ
1296. elka

## Sarrera

Mendebaldeko herrietan zenbat eta nagusiago izan, oro har, jarduera fisiko gutxiago egiten da eta disfuntzio baskularrak(1-7) eragiteko aukera gehiago ematen duen bizimodua izan ohi da. Azterlan askok adierazi dituzte zahartzeak sistema kardiobaskularrean dituen ondorioak. Fleg-ek(1) eta Izquierdo et al-ek(2) adierazten dute gehieneko oxigeno- kontsumoa (VO2max) % 8-10 murrizten dela hamarkada bakoitzean helduetan 25 urtetik aurrera, eta % 20-25 ere murriztera iristen da 70 urtetik aurrera. Murrizketa hori gehieneko gastu kardiakoa murrizteari eta gehieneko O2 diferentzia-arteriobenosoa murrizteari zor zaie. Era berean, baieztatzen dute bihotz-maiztasuna minutuko 6-10 taupada murrizten dela hamarkada bakoitzeko; hortaz, oro har, hori da adinarekin lotzen den gehieneko gastu kardiakoaren kausa. Halaber, adierazten dute adineko nagusiek betetze diastoliko goiztiarraren murrizketa dutela (atsedenean eta ariketa egitean), betetze diastoliko aurikular berantiarraren murrizketa (atsedenean eta ariketa egitean), ariketa maximoan bukaerako bolumen sistoliko txikiagoak, eta, beraz, ariketa maximoan eiekzio bolumen txikiagoak. Azkenik, badirudi ezkerreko uzkurkortasun eta distentsibilitate bentrikularra murriztu egiten dela ariketa maximoan, heldu gazteekin alderatuta. Izquierdo et al-ek(2) ariketa fisikoan uzkurkortasun kardiakoa eta maiztasuna handitzeko muga hartzaile □-adrenergikoen estimulazio-erantzuna murrizteari egozten diote.

Hainbat egilek(1-3, 6, 8) beren lanetan jasotzen dute tentsio arteriala handitzea adinarekin lotuta dagoela, eta adierazten dute adinekoen ia % 70ek hipertentsioa dutela (balioak: presio arterial sistolikoa ≥140 mmHg eta/edo diastolikoa ≥90 mmHg. Egoera hori bultzatu egiten du erresistentzia baskularrak(4, 7) areagotzeak.

Bestalde, zahartzaroan ageri diren aldaketa metabolikoak aipatu behar dira(1, 3, 6, 9): intsulinarekiko erresistentzia handitzea, dislipemia eta erraietako adipositatea eta gorputz-masaren indizea handitzea.
Adinarekin lotutako aldaketa horiek guztiek handitu egiten dute istripu zerebrobaskularrak, miokardioko infartuak, arazo baskular periferikoak eta abar izateko arriskua.

Fisioterapeutok ariketa fisikoa balia dezakegu gure pazienteen osasun-egoera zaintzen ahalegintzeko. Are gehiago mendebaldeko gizarteetan; izan ere, horietan, biztanleriaren zahartzeren eta gaixotasun kronikoen prebalentzia nabarmenaren(1, 4) ondorioz, ariketa fisiko terapeutikoko programa gero eta gehiago behar dira.

## Helburua, bilaketa-estrategia eta azterlanen hautaketa

